

# Berriro ere pedala zapaltzen

**Urtebeteko atsedenaldia eta gero, berriro heldu die auto lasterketei Dani Cortes gazteak. 21 urteko auzotarrak Clio Kopan parte hartuko du.**



Argazkia nagusian Dani Cortes. Txikian, auzoko pilotuak hiru urtez gidatutako eserleku bakarreko autoa.

**H**amalau urterekin hasi zen Dani Cortes auzotarra kart txapelketetan parte hartzen. Hiru urte geroago Toyota Kopan eman zuen izena eta hiru denboraldiz aritu zen bertan, 1999tik 2001era arte, alegia. 2001ean, zazpi-garren izan zen Valentziako zirkuituan, eta huraxe izan zen lortutako emaitzarik onena. 2002an auzoko pilotuak atsedenaldia hartu zuen, ikasketetan buru-belarri murgiltzeko, eta garestiegia zelako Toyota Kopan jarraitzea. Aurtan, Dani berriro hasi da auto lasterketetan, Clio Kopan, hain zuzen ere. Hiru urtez gidatutako Toyota-ren eta aurtengo Clio-aren arteko desberdintasunez mintzatu zaigu pi-

lotu gaztea: *"Toyota Kopan eta antzeko mailetan eserleku bakarreko autoak gidatu behar dira. Clio Kopako ibilgai-luak, aldiz, lasterketarako propio prestatzen diren arren, ohiko turismoak dira"*.

## Eserleku bakarrekoak nahiago

Clio Kopan aritzea hasieran gogorra egingo zaiola dio Danik: *"Aurtengo autoak ez du*

*zerikusirik duela bi urte gidatutakoarekin. Gainera, kontuan hartu behar da iaz ez nintzela lehiatu, eta beraz, lehenengo lasterketetan kosta egingo zaidala txapelketari neurria hartzea"*. Cortesek hiru helburu ditu aurtan: lehenengo artean sailkatzea, babesleren bat lortzea eta lehenbailehen eserleku bakarreko autoetara itzultzea: *"Izan ere, auto horiek turismoak baino azkarragoak eta, oro har, hobekak dira"*. Auzotarra beste 35 piloturekin lehiatuko da aurtan Clio Kopan. Lehen lasterketa hilaren 30ean, igandea, Madrilgo Jarama zirkuituan jokatuko du. Ondoren, urria bitartean, Albaceten, Xerezan, Montmelon eta berriro ere Jaraman ariko da. Zorte on!

**Danik Clio Kopan parte hartuko du aurtan**

## Hondeamakinak Serapio Mujikan


Egunotan, Serapio Mujika kaleko behealdean, hondeamakinak ditugu nonahi. Batetik, Kontadoreseko etxebizitzak eraikitzen ari dira. Bestetik, eliza ondoko parkeko berritze lanak azken txanpan dira. Azkenik, argazkian ikus daitekeenez, egunotan kiroldegiaren aurrealdeko espaloia zabaltzen ari dira.



## Jasonebasoko obrak hastear

Egun gutxi barru hasiko dira Jasonebaso futbol zelaila berritzeko lanak. Belar artifiziala jartzeaz gain, errepidetik gertuen dagoen ate atzean aldagela berriak, harmailak eta aparkalekua egingo dira. Gogoratu behar da Bidebieta-koa Donostian geratzen den hartxintzar futbol zelai baka-rrenetakoa dela.



 **ALKANDORA  
ARROPADENDA**

Andia 1 Tel.: 943 42 03 49 DONOSTIA

**EL TURISTA**  
KIROL ETA BIDAIAERAKO  
ARTIKULUA

LEGAZPI, 6 • Tel.: 943 42 77 46